

EUSKAL MITOLOGIA: ELEZAHARRAK

Anbotoko sorgina, Mari izenez ere ezagutzen da. Elezahar desberdinak kontatzen dira berari buruz.

Irakurri hurrengo elezaharra eta erantzun azpiko galderei.

MARI EDO ANBOTOKO SORGINA

Duela urte asko, zazpi urtez egon zen Mari bere haitzulotik desagertuta. Egun batean, zaldi bat zeruan hegan ikusi zutenean eta izugarrizko euri jasa hasi zuenean, herritarrak berehala konturatu ziren Mari bueltatu zela.

Marizulo kobazuloa zuen bizileku, eta urrez estalia zuen. Dena urrezkoa omen zen barruan, altzariak ere bai.

Behin batean, Anbotoko mendiari laino-txapela gelditu zitzaion tontorrean. Orduan ohartu ziren Marik labea piztu zuela.

Goiz batean, Kattalin izeneko neska gazte bat joan zen mendira artaldearekin, eta, egun guztian ardiak larrean eduki ondoren, artaldea biltzen hasi zen.

Kontatu zituenean, bat falta zitzaiola konturatu zen eta mendian gora abiatu zen falta zitzaion ardiaren bila. Batek baino gehiagok esana zion Mari Anboto mendian zegoenean, ez gerturatzeko inguru haietara, baina ardi galdua topatu beharra zeukan. Bila eta bila aritu ondoren, ardia haitzulo baten sarreran aurkitu zuen, eta bere ondoan andre eder, sekula ikusi ez zuen bezalako dama. Mari zen.

- Nor zara zu, zein familiatakoa zara? -galdetu zion Marik.
- Kattalin naiz, ez daukat familiarik eta ardiekin etorri naiz hona - erantzun zion Kattalinek beldur apur batekin.
- Horrela bada, proposamen bat egingo dizut. Zazpi urtez nirekin bizitzen geratzen bazara, aberats bihurtuko zaitut!

Horrela, bada, Kattalin Marizuloko damari laguntzen gelditu zen, eta zazpi urte haietan asko ikasi zuen neskatzak: haria egiten, ogia egiten, landareen ezaugarri magikoak ezagutzen...

Di-da batean pasa ziren urteak, eta, garaia iritsi zenean, honela esan zion Marik:

—Kattalin, ondo bete duzu zure hitza, zintzo lagundu didazu, eta esanekoa izan zara. Nik joan egin behar dut, eta aberatsa egingo zintudala agindu nizunez, tori! Marik ikatz puska handi bat eman zion.

Harrituta gelditu zen neska gaztea, baina ez zen ausartu ezer esaten. Haitzulotik atera zenean, urre distiratsu bihurtu zen ikatza. Neska pozaren pozez jaitsi zen herrira; etxea eta artaldea erosi zituen, eta inoren aginduetara egon beharrik gabe bizi izan zen zoriontsu gure Kattalin.

Aukeratu erantzun zuzena:

1- Zer gertatu zen Mari Anboto mendira itzuli zenean?

- a) Zaldi hegalaria agertu zen eguzkiaren ondoan.
- b) Zaldi hegalaria bat agertu zen euriarekin batera.
- c) Zaldi hegalaria agertu zen, baina euririk ez.

2- Zer gertatu zitzaion Kattalini ardiekin?

- a) Artaldea galdu zuela.
- b) Artaldeko txakurra galdu zuela.
- c) Artaldeko ardi bat galdu zuela.

3- Zer ikusi zuen Kattalinekin haitzulo sarreran?

- a) Dama eder bat.
- b) Dama eder bat eta ardi galdua.
- c) Ardi galdua, txakurra eta dama eder bat.

4- Zer proposamen egin zion Marik Kattalini?

- a) Zazpi urtez berekin bizitzeko eskatu zion.
- b) Zazpi urtez etxetik ez ateratzeko eskatu zion.
- c) Zazpi urtez Mari herrira eramateko eskatu zion.

5- Nola pasa zitzaizkion urteak Kattalini?

- a) Oso azkar.
- b) Poliki
- c) Oso poliki

6- Zergatik eman zion ikatz puska Marik Kattalini?

- a) Sua pizteko.
- b) Zazpi urtez berekin bizitzeagatik.
- c) Kattalinek zintzo jokatu ez zuelako.

7) Zein testu mota irakurri duzu?

- a) Elezaharra
- b) Elkarrizketa
- c) Albiste

8) Zer egingo zenuke zuk Mari ikusiko bazenu? Onartuko al zenuke tratua? Zergatik? (erantzun 2-3 lerrotan).

9) Asmatu etea idatzi 3-4 lerrotan elezaharraren amaiera. Beste egun batean kontatuko dizut nik, benetako bukaera.